

da = cosa de comer, &. Iainkoak bizi luzea emoten ba deust, eta ortarako astia, isplikatuko naz obeto.

"Alako edo olako maixuak (maixuk) jokera ori asi dauala-ta, beste barik ezin geinkio jarraitu. Nik neuk beintzat, ez", diño bedorrek. Bapo! "Nik neuk (barrero), moi je prantsesez, sekula ez neban entzun errian urtedun itza, urteko baiño... **Erderismos** Altube'ren idazkian jokera orren okerragaz konturatu arte". —Zure arrazoi motz bateri osteragiltza emongo neuskio, Altube iaunari zor iakon begirunea ez baneuko tar-tean: "Alako edo olako maixuk esan dauala-ta, beste barik ezin geinkio jarraitu". Baiña goazen arrazoiketara. Dakidala nik ez dot erabili urtedun, baiña darabilenari ez deustot muxin egingo. Itxiozu pakean erriari. Gauza bat ondo esaten ba'dau, beste bat ondo esana surkitu lei, erriak esaten ez ba'dau bere. Altube iaunaren baimenagaz, ez dot uste urtedun txarto dagonik. Iñok ez dau itanduten "nungo edo noizko urte dozuz?" zenbat urte dozuz? ba, denporea gauza lez artzen dogula, -go, -ko, toki dira: etxeko, baserriko, mendiko, &.

"Jokera ori bidezkoa ba'litz (-a artikulua kendutea) nik be artuko neuke. Baiña orretarako arrazoiak emon bekidaz". —Par-katu, baiñan ori ez da enskera. Emon (nik) ezin uztartu dadi *ekidin*'ekin, biak -k gabedun adi-iabea behar baitabe. Etorri bekidaz, gertau bekidaz, eta abar ondo dagoz, bai. (*Ni* etorri, *au* gertatu), ez nik eta onek. Ori, idia astoagaz uztartutea da. Emon begidaz, bai; emon eta egin biak *k-dun* baitira.

Bedorren serbitzurako.

Orixe,

BIOTZA GORDIN

Biotza gordin, ezea...
Odolaren kea
ke eze, gordiña,
gorri antzean urdiña.
Ai urdiñaren gaztea!
Ai gorriaren griña!

**

Ba-du zugaitzak
zorne ixilla,
indar emango diona.
Alaxe dugu gizona:
biotz-mamian

odol aparra.
Odol apar purpuilpean
bere indarrak
gorri diraki
bor-bor ixillean...
Maitasun moztioa
sagardo biurtutzen
upel-sabelean...

**

Geldi, geldi, gazte susper!
lanean duzu biotza.
Apar likitsa bota dezaiño
sartu berriro zipotza.
Goza da bai moztioa:
moztioaren gozoa...
Edan da edan
xora zindezke;
xoramenaren moskorra...
Geldi, geldi, gazte susper!
odola duzu zikiña.
Zaude ixillik maitasun zai,
ameslari, alai,
naiz barnean miña...
Noiz zure ordua iritxiko ote?
Noiz garbituko odola?
Geldi, ameslari...
naiz barnean griña...

**

Biotza gordin, ezea...
Odolaren kea...
Orain bai maite duzula,
garbi, bulkotsu bai zera,
maitasunaren urrea...
Urrezko pakea!

Otarri

EUSKAL-ADITZA

Laister zuen eskuetarako eran izango da liburuxka pollit bat: «Euskal-aditza: Gipuzko - Bizkaierak. Paradigmas verbales y método racional para su estudio» deritzaiona.

Aditz berri bat?, esango diguzute. Bai ta ez. Euskal-berbua betikoa dugu; baiña ba-liteke, oraingo onetan, zenbaitetan baiño zuzenago aurkitzea (aurkibidean ikus dezakezute ori). Batez ere, beste alde onak dituela esango genuke: gipuzkera ta bizkaiera batera doaz ta, gaiñera, metodu bat du biontzat, ikas-bideak malkartsuegi ger-